

DEIALDIAREN OINARRI ARAUTZAILEAK EUSKARA-IKASTAROETAN MATRIKULATUTAKO IKASLEEI DIRULAGUNTZAK EMATEKO

1. OINARRI ARAUTZAILEAK ETA ARAUDI APLIKAGARRIAK

Deialdia arautzen duten oinarri arautzailea Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatearen Dirulaguntzak ematea arautzen duen Ordenantza da, 2005eko abenduaren 29ko Osoko Bilkuran onartua (BAO, 65. zenbakia, 2006ko apirilaren 3koa).

Deialdi hau, oro har, honako manu hauetan oinarrituko da: oinarri arautzaileetan ezarritakoa, dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra (aurrerantzean, DLO) eta hura garatzeko Erregelamendua, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartutakoa, (aurrerantzean DLOA) eta 2025eko ekitaldirako mankomunitate-aurrekontua gauzatzeko araua. Horiek osatze aldera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean eta aplikagarria izan daitekeen beste edozein arau-xedapenetan ere oinarrituko da.

Dirulaguntza hauen kudeaketan publizitate, lehia, gardentasun, objektibotasun, berdintasun eta bereizketarik ezaren printzipioak zainduko dira, baita helburuak lortzeko eraginkortasun eta baliabide publikoak esleitu eta erabiltzean efizientzia printzipioak ere.

2. OINARRI ARAUTZAILEEN ETA DEIALDI HONEN XEDEA

Oinarrien eta deialdiaren helburua dirulaguntzak emateko baldintzak arautzea da, norgehiagoka araubidean, Txorierriko herritarrei emango zaizkienak, 2024-2025 ikasturtean euskalduntze eta alfabetatzera bideratutako ikastaroak egiteko, bai euskaltegi homologatuetan baita barnetegietan ere.

Txorierriko Mankomunitateari ere eskatu ahal izango diote dirulaguntza HABEk homologatutako euskara mailak edo baliokideak egiaztatzeko azterketak gainditu dituzten (mailak: A1, A2, B1, B2, C1 edo C2) eta HABEren dirulaguntza jaso duten ikasleek.

Hori ematen bazaie, HABEren laguntzak, Txorierriko Mankomunitatearen laguntzak eta beste udal-laguntza posibleek, gehituta, ez dute deialdi honen 5. artikuluan zehaztutako ehunekoa gaindituko.

- Baztertzeak

Dirulaguntza horretatik kanpo geratuko dira: graduondoko ikastaroak, doktoretzak, masterrak, graduak, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko irakaskuntza arautua (horren barruan daude Hizkuntza Eskola Ofizialak) eta Txorierriko Udal Euskaltegiko ikastaroak (izan ere, euskaltegiak zuzenean emango die ikasleei dirulaguntza). Kanpoan geratuko dira ere beste erakunde batzuek antolatutako gradu edo ikastaroak, baita IRALE, IVAP eta abarren programa bereziak ere.

Ez da dirulaguntzarik jasoko garraio-gastuetarako.

3. AURREKONTU-KREDITUA

Laguntza horietara bideratuko den gehieneko diru kopurua 4.000 euro izango dira, 335 48000 aurrekontu-aplikazioaren kargura.

4. PUBLIZITATEA

Dirulaguntzen Datu-base Nazionalak dirulaguntzen publizitate-sistema nazional gisa jardungo du. Hori dela eta, dirulaguntzak ematen dituzten erakundeek Dirulaguntzen Datu Base Nazionalari eman beharko diote deialdien eta emateko ebazpenen informazioa, DLOn ezarritako inguruabarretan aipatutakoen arabera.

Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da deialdiaren laburpen bat, Dirulaguntzen Datu Base Nazionalaren bidez, horren aurrean deialdiaren testua eta hori argitaratzeko beharrezko informazioa aurkeztu ostean.

5. ESKABIDEAK AURKEZTEKO EPEA ETA LEKUA

Deialdia behin Dirulaguntzen Base Nazionalean jasota, eskabideak aurkezteko epea Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzean hasiko da, eta 2025eko urriaren 31ra arte luzatuko da. Jaieguna bada hurrengo egun baliodunera luzatuko da.

Eskabideak aurkeztea:

-Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatearen webgunean (www.txorierri.eus) edo Derio, Larrabetzu, Lezama, Loiu, Sondika eta Zamudioko udaletxeetan jaso ahal izango dira.

Txorierriko Mankomunitateko Euskara Zerbitzuan edo aipatutako edozein udaletan aurkeztu ahal izango dira.

-Era berean, eskaerak telematikoki tramitatu ahal izango dira, Mankomunitatearen web orriaren bidez (www.txorierri.eus).

“Tramiteak” atalean, “Dirulaguntzen, beken, sarien eta laguntzen eskaera” aukera hautatu behar da. Dirulaguntza jasotzeko, beharrezkoa da honako ziurtagiri digital hauetako bat indarrean izatea: Bak, BakQ edo Izenpe txartel birtuala.

6. BALDINTZAK

Dirulaguntzak jasotzen dituzten pertsonak honako baldintza hauek bete behar dituzte:

- 16 urtetik gorakoak izatea edo 2025. urtean adin hori betetzea. Honenbestez, urte horretan egindako matrikulak lagunduko dira diruz.

- Derioko, Larrabetzuko, Lezamako, Loiuko, Sondikako edo Zamudioko udalerrietan erroldatuta egotea, gutxienez ere 2024ko urriaren 1etik.

- Ikasleak gutxienez ematen diren orduen % 80ra joan beharko dira matrikula hasten denetik ikasturtea amaitu arte. Nahitaezko betebeharrek edo gaixotasun bajek eragindako huts egiteak erakunde eskudun batek justifikatu beharko ditu.

- Dirulaguntza eskatzeko azpimaila gainditu izana.

- Azpimaila bakoitza soilik behin lagunduko da diruz, salbu: azpimaila beragatiko dirulaguntza jaso zenetik hiru ikasturte baino gehiago igaro badira.
- Beka jasotzeko ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatzen duten jardueren mende jartzea eta Txorierriko Mankomunitateak eskatutako informazioa ematea.

7. ESKABIDEAK

Behar bezala betetako eskabideak Mankomunitateko Presidentziari bidaliko zaizkio idatziz, erantsitako ereduari jarraiki.

Eskabideak honakoekin batera aurkeztu beharko dira:

- NANaren fotokopia.
- Erroldatze-ziurtagiria, (datarekin).
- Langabezia dauden pertsonen LANBIDE txartelaren fotokopia aurkeztu beharko dute, behar bezala zigilatuta eta eguneratuta.
- Oinarrizko Errentaren eta/edo Gizarte Larrialdietarako Laguntzaren onuradunek laguntza hori jaso izanaren justifikazio dokumentua aurkeztu beharko dute.
- Matrikula ordaindu izanaren ziurtagiriaren fotokopia. Barnetegien kasuan, soilik matrikulari dagokion kostuaren banakatzea erantsi beharko da.
- Derrigorrezko zinpeko adierazpena: eskatutako dirulaguntzena eta beste administrazioetatik jasotako dirulaguntzena, baita beste dirulaguntzarik eskatu edo jaso ez izanarena ere (ikusi 1. eranskina).
- “Ikaslearen ibilbidea-oso” dokumentua Webgunean eskuragarri: www.habe.euskadi.eus (Dokumentua lortzeko jarraibideak: ikusi 2. eranskina)
- Eskabide orrian kontu-zenbakia (IBAN kodea eta 20 digitu) egon beharko da; baita titularraren izena eta NANA ere. Kontu korrontearen zenbakiarekin batera, dagokion bankuak edo aurrezki kutxak eskabide orrian dauden datuak balioztatu beharko ditu, eta horretarako eskabide orriari zigilua jarri beharko dio.

Baldin eta eskabideak ezarriarik dauden beharkizunak betetzen ez baditu, interesdunari eskatuko zaio hamar eguneko epean akatsa zuzentzeko edo aginduzko agiriak aurkezteko, eta adieraziko zaio, hala egiten ez badu, eskabidean atzera egin duela ulertuko dela, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. artikuluan aurreikusitako moduan ebazpena eman ondoren.

8. DIRULAGUNTZAREN ZENBATEKOA

Matrikularen prezioari dagokionez emango den dirulaguntzaren zenbatekoa honako hau izango da:

- %100, Oinarrizko Errentaren eta/edo Gizarte Larrialdietarako Laguntzaren onuradunei.

- %75, langabezian dauden pertsonen. Langabezia egoera dirulaguntza eskatu den ikasturtean zehar eman beharko da.
- % 50, gainerako ikasleei.

Dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa 600 euro ikasleko izango da.

Eskabideek aurrekontu-partidako gehieneko kopurua gainditzen badute, dirulaguntzaren zenbatekoa murriztuko da, modu proportzionalan aurrekontu partidaren mugaren arabera.

9. DIRULAGUNTZA EMATEKO PROZEDURA

Mankomunitateko presidentzia izango da deialdia onartzeko organo eskuduna.

Laguntzak emateko prozedura lehia askekoa izango da, azaroaren 17ko Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 22.1. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 55. artikuluari dagokionez, zeinaren bidez onartzen den aipatutako legearen Erregelamendua. Lege horren 1. ataleko 2. paragrafoaren arabera: “dirulaguntza arautzen duten oinarriek salbuetsi ahal izango dute aurkeztutako eskabideen artean lehentasun ordena ezartzeko betekizuna, baldin eta ezarritako baldintzak betetzen badituzte, baldin eta, aurkeztutako eskabide kopurua kontuan hartuta, esleitutako kreditua nahikoa bada, eskabideak aurkezteko epea amaitu ondoren”.

Dirulaguntzak emango zaizkie arau horietan ezarritako baldintza guztiak betetzen dituzten eskatzaileei, aurrekontuaren mugen barruan.

Deialdiaren izapideak arintzeko, laguntzen eskatzaileek erabili dezaketen helbide elektronikoa gaituta izan behako dute izapidean zehar, aurkeztutako dokumentazioan akatsik egonez gero horiek konpondu ahal izateko, edota eskatutako laguntzak modu arin eta eraginkorrean ebatzi ahal izateko beharrezko beste edozein eskaerari erantzuteko, legez ezarritako moduan.

Presidentziaren Dekretuaren bidez ebatziko dira eskabideak, Mankomunitateko herritarren informazio batzordeak hala proposatuta eta Euskara Sailak txosten teknikoa eman ondoren. Gehienez 6 hilabeteko epean ebatziko dira eskabideak, deialdiaren datatik aurrera zenbatuta.

Presidentziaren ebazpenak adieraziko du izapidetako onartutako eskabideak ukatu, eman, zuzendu edo artxibatu diren.

Dirulaguntzak emateko ebazpenean, dirulaguntzaren zenbatekoa eta ordaintzeko modua zehaztuko dira.

Epea amaitu eta eskabideak ebazpenik jaso ezean, ulertuko da ukatua izan dela, geroago berariaz ebaztea eragotzi gabe.

Mankomunitateburuaren ebazpenak amaiera eman dio administrazio bideari, eta horren aurka berraztertzeko errekurtoa jarri ahal izango da organo beraren aurrean, hilabeteko epean, jakinarazpenaren hurrengo egunetik hasita, edo zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtoa jarri

ahal izango da Bilboko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazpenaren hurrengo egunetik hasita.

10. ONURADUNEN BETEBEHARRAK

Dirulaguntzei buruz indarrean dagoen araudian ezarritakoez gain, pertsona onuradunen betebeharrak honako hauek dira:

- Mankomunitate emailearen aurrean justifikatzea eskatutako betekizunak eta baldintzak betetzen direla, edo baimena ematea prozeduraren organo izapidegileak frogatu dezan.
- Dirulaguntzen arloan indarrean dagoen araudian aurreikusitako finantza-egiaztapeneko eta -kontroleko jardueren mende jartzea.
- Laguntza emailea den organoari jakinaraztea diruz lagundutako jarduerak finantzatzen dituzten beste edozein laguntza, dirulaguntza, diru-sarrera edo baliabide jaso izana. Horren berri izan eta berehala egin beharko da jakinarazpena.
- Laguntza ematea, eta Mankomunitateari dagozkion kontrol-eginkizunak betetzean eskatzen diren ebidentzia guztiak ematea.
- Dirulaguntzen Lege Orokorrean eta oinarri hauetan aipatutako egoeretan jasotako funtsak itzultzea.
- Jasotzen diren funtsak aplikatzeko egiaztagiriak gorde beharko dituzte, agiri elektronikoak barne, agiri horiek gerora egiaztapen- eta kontrol-jarduketetarako behar izan baitaitezke. Jasotzen diren funtsak zertan erabili diren justifikatzen duten agiriak gordetzea, agiri elektronikoak barne, egiaztatze- eta kontrol-jardueren xede izan baitaitezke.
- Diruz lagundutako jardueren xedeari edo izaerari eragin diezaiokeen edozein gertakizun jakinaraztea.
- Oro har, Dirulaguntzen Lege Orokorren 14. artikuluan jasotako beste edozein.

Dirulaguntza horien onuradunak dirulaguntzei aplikatu ahal zaien indarrean dagoen araudian ezarritako erantzukizunen, arau hausteen eta zehapenen mende egongo dira.

11. DIRULAGUNTZA ORDAINTZEA

Dirulaguntza ordainketa bakarrean emango da, ematen den egunean, baimena emateko baldintzak egiaztatzeko ezar daitezkeen kontrolak alde batera utzi gabe.

12. DIRULAGUNTZAK ITZULTZEA

Jasotako zenbatekoa itzultzeko, hala dagokionean, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorren II. tituluan, DLOEren III. tituluan eta dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorren II. tituluan xedatutakoa bete beharko da.

DLOaren 36. artikuluan jasotako emakida-ebazpenaren baliogabetasun-arrazoiekin batera, jasotako zenbatekoak, osorik edo zati batean, itzuli beharko dira, eta, horrez gain, dirulaguntza ordaintzen den egunetik itzulketa bidezkoa dela erabakitzen den arte dagokion berandutze-interesa eskatuko da, dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 37. artikuluan oro har aurreikusitako kasuetan.

Dirulaguntza itzultzeko prozedura hasteko eskubideari kalterik egin gabe, dirulaguntza jasotzeko betebeharrak betetzen ez baditu, pertsona onuradunak horren berri eman ahal izango dio organo kudeatzaileari sarrera-erregistroaren bidez, eta jasotako zenbatekoa borondatez itzuli ahal izango du. Horretarako, harremanetan jarri beharko da Kudeaketa Zerbitzuarekin, jarraitu beharreko izapideen ondorioetarako. Era berean, berandutze-interesak kalkulatuko dira, harik eta itzulketa gauzatzen den arte.

13. ZEHAPEN ERREGIMENA

Oinarri hauetan araututako laguntzei lotuta egiten diren arau hauste administratiboak Dirulaguntzen Lege Orokorraren IV. tituluaren aurreikusitakoaren arabera zigortu ahal izango dira.

14. DATU PERTSONALEN TRATAMENDU AUTOMATIZATUA.

Datu pertsonalen babesa bermatzeko Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatea bere jarduketa hauen arabera egingo du: Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra (2016/679 EB Erregelamendua) eta Datu Pertsonalak Babesteko eta eskubide digitalak bermatzeko 3/2018 Lege Organikoa.

Bildutako datuak beharrezkoak dira Mankomunitateari emandako botere publikoen eginkizunean eta legezko betebeharrak betetzean, eta horiei lotutako eskumenak dituzten Administrazio Publikoei jakinarazi ahal izango zaizkie.

Datuen titularrek datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, aurka egiteko eta tratamendua mugatzeko eskubideak baliatu ahal izango dituzte, Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateari idatzizko komunikazioa bidalita.

AZKEN XEDAPENA

Oinarri arautzaileen laburpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera jarriko dira indarrean.